

Teléfonos y faxes de los servicios municipales

Ayuntamiento:

Plaza San Martín de Agirre, 1
20570 Bergara (Gipuzkoa)
Telf.: 943 77 91 00
Fax: 943 77 91 63
E-mail: bergara@bergara.net

ALCALDÍA	tel: 943 77 91 01 fax: 943 77 91 63
ARCHIVO	tel: 943 77 91 32 fax: 943 77 91 63
BIBLIOTECA- CASA DE CULTURA	tel: 943 77 91 62 fax: 943 77 91 69
BIBLIOTECA DE ANGIOZAR	tel: 943 76 16 19
BIBLIOTECA DE OSINTXU	tel: 943 76 23 76
BIENESTAR SOCIAL	tel: 943 77 91 65 fax: 943 77 91 63
CEMENTERIO	tel: 943 76 27 81 fax: 943 77 91 63
COMITÉ DE EMPRESA	tel: 943 77 91 73 fax: 943 77 91 63
CULTURA	tel: 943 77 91 58 fax: 943 77 91 57
DEPORTES	tel: 943 77 91 67 fax: 943 77 91 63
EUSKARA	tel: 943 77 91 66 fax: 943 77 91 63
INFORMÁTICA	tel: 943 77 91 37 fax: 943 77 91 63
INTERVENCIÓN-HACIENDA	tel: 943 77 91 64 fax: 943 77 91 63
OBRAS Y SERVICIOS- ALMACÉN MUNICIPAL	tel: 943 77 91 52 fax: 943 77 91 20
PATRIMONIO ARTÍSTICO, MUSEÓLOGO	tel: 943 77 91 62 fax: 943 77 91 69
POLICÍA MUNICIPAL	tel: 943 77 91 06 fax: 943 77 91 63
POLIDEPORTIVO	tel: 943 76 56 41 fax: 943 77 91 63
PISCINAS	tel: 943 76 20 51 fax: 943 77 91 63
SECRETARÍA	tel: 943 77 91 00 fax: 943 77 91 63
URBANISMO Y MEDIO AMBIENTE	tel: 943 77 91 68 fax: 943 77 91 56

Ubera

Auzoa ezagutzen

Bergararik Bilborako bidearen alde bietan banatuta dago auzoa eta dituen 148 biztanleetatik gehiengoa baserrietan sakabanatuta bizi da.

Hala ere, Uberak badu kale-gune bat, bertan San Paulo eliza dagoelarik.

1927ra arte, Elgetaren menpe egon zen, baina Angiozar auzoarekin batera, urte horretan Bergarako auzo bat izatea lortu zuen Uberak.

Dirudienez, Urbera da jatorrizko izena, auzunearen ondoan batzen baitira gero San Juan ibaiarekin elkartuko diren lau errekatxo. Hauek hiru ubide herriaren hornidurarako hartuta daude.



Etxeak, frontoia eta hainbat proiektu

Nahiz eta Uberako biztanleak asko ez izan, hobetzen doan gunea da; alde batetik familia bakarreko zortzi etxe eraikiko dira. Proiektua onartuta dago eta azken baimena uztaillean helduko da. Gauzak horrela, irailean hasiko dira lanak.

Frontoia bestalde, auzoarena da; momentuz negoziazioetan dabilta bai auzoa eta bai Udala. Azken honek auzoko arduradunek jarri dituzten baldintzak onartzen baditu, jabetza berarentzat izango da. Negoziaketa bukatzen denean eta pilotalekua Udalarena denean, hainbat konponketa burututuko dira.

Maestriaren etxeak ere konponketak behar ditu baina alde aurretik zertarako erabiliko den erabakiko da.

Uberara Urkulutik ura ekartzeko prozesuaren bigarren fasea adjudikatu da jadanik; beraz, denbora gutxi barru hasiko dira ura eramateko lanak. Argi dago auzoetara aurrerapenak eta hobekuntzak heltzen direla baita ere.

Auzoa bai baina bizitzaz beteta

Ubera baserriez osatutako auzoa izateaz gain, monumentuak eta elkartek ditu.

Monumentuen artean San Paulo eliza dago; nabe bakarreko eliza da eta egurrezko sapaia du. Dorrea burualdean itsasia dago, laukizuzen erakoa, teilatua txuntxurrean eta gainaldean gurutzea eta haizeorratza duelarik. Kanpo santua elizaren ondoan dago.

San Emeteri eta Zeledonio-ren ermita (San Matei), Etxeberriaundia (Santikua) baserriaren ondoan kokatzen da. Horma margotuak, porlanezko lurra eta erretaula aipatzekoak dira.

Jaolatza elkartea ezaguna da baita ere, orain dela 25 urte emakumeak bazkide bezala onartu zituen eta.



BERGARA

03

Udal Aldizkaria/Revista Municipal
maiatza/mayo 2005



www.bergara.es



Zuen iradokizunak ongietorriak izango dira

Udalak zuen iradokizunak jasotzeko bi bide eskaintzen dizue; bata aldizkari honetan aurkituko duzuen iradokizun orria bete eta Udaltzaingoaren ondoan dagoen kutxatilan sartuz edo bestea www.bergara.es helbidean egin dezakezue.

Vuestras sugerencias serán bien reci- bidas

El Consistorio os ofrece dos posibilidades para hacer llegar vuestras sugerencias; la primera consiste en rellenar la hoja que se adjunta en esta revista y depositarla en la urna que se encuentra junto a la Policía Municipal. La segunda se puede realizar en la dirección www.bergara.es.

03



Drogen Prebentziorako

III. Egitasmoa. Bergara 2005-2009

Drogen erabilera murrizteko, 5 urtetarako planaren zirriborroa prestatu du Udalak

Drogen prebentziorako Plan honek, hurrengo 5 urteetan, herrian bultzatu nahi den esku-hartzea azaltzen du. Beraz, lanerako gida eta baliabide moduan aurkezten da.

Orain arte planak 3 urterako ziren, baina 2004an, Droga Menpekotasun Aholku Kontseiluaren proposamena eta erabakia ikusirik, Eusko Lege Biltzarrak aldaketa onartu zuen eta bertan Drogen Gaien Planen iraupena 5 urtetakoa ezartzea erabaki zen.

Egitasmo hau prestatzerakoan honako puntuak hartu dira kontutan:

- Legeak gai honen inguruan esaten duena aztertuta da.
- Egoeraren diagnostiko bat egin da.
- Diagnostikoaren arabera, hurrengo 5 urteetan egingo diren programak eta proiektuak zehaztuko dira.
- Egitasmoa aurrera eramateko aurreikusten diren baliabideak, aurrekontuak eta epeak zehaztuko dira eta plana aurrera doan bitartean, hobetze sistema ezarriko da.
- Azkenik, antolakuntza eta koordinazioa erabakiko dira.

Oso garrantzitsua da diagnostiko sakon bat egin, plan hau aurrera eraman eta emaitza positi-

boak lortzeko; era horretan, alkohola, tabakoa, kalamua eta gainerako legez kanpoko sustantzien kontsumoa zenbatekoa den zehazten da, eta osasun arloko, tratamendu hasierako, larrialdietako, hilkortasuneko, HIESaren, poliziaren eta espetxeetako zeharkako adierazleak ere, kontutan hartzen dira.

Aurreko urteetako prebentzio planak ikusirik, eskola eremuko eta familia eremuko prebentzioa indartu eta programa berezi hauek prestatzerakoan, emakumeen eta gizonen egoera, baldintza eta behar ezberdinak aintzat hartu behar direla antzematen da.

Gai honetan Komunikabideen papera funtsezkoa dela ikusi da, gizarte ordezkariak aldatzeko ahalmena baitute.

Bestalde, eskola, familia, lana, aisialdiko eta jolasarako guneak, behea jotako auzoak eta inguruak eta espetxeak, kontuan hartu beharrezko esku-hartze guneak dira. Hauekin batera, nerabeak eta gazteak, erabilera problematikoak dituzten kontsumitzaileak, kolektibo urrakorrak, gizarte bazterketa larrian dauden pertsonak eta delitugileak izango dira esku-hartze kolektiboak.

Hori guztia kontuan izanda, Drogen Gaien Inguruko III. Planaren zeregin nagusia EAEko V. Planaren zereginarekin bat dator eta ondoko hau da: drogen erabilera problematikoak ahalik eta gehien murriztea.

Urte hauetan drogekin zerikusia izan duten gaien inguruko esku-hartzeak izan duen baliabide ekonomikoei dagokienez ondoko hau ikus dezakegu:

AURREKONTUAK, GASTUAK ETA DIRULAGUNTZAK					
Kontzeptua/Urtea	2000	2001	2002	2003	2004
Prebentziorako Jarduerak					
Aurrekontua	15.927 €	15.927 €	17.000 €	30.000 €	38.796 €
Gastua	13.388 €	18.746 €	22.408 €	29.767 €	36.733 €
Dirulaguntza	1.650 €	1.350 €	4.426 €	5.144 €	8.178 €
Tratamendurako Dirulaguntzak					
Aurrekontua	7.212 €	7.212 €	7.200 €	7.200 €	4.200 €
Gastua	2.535 €	119 €	0 €		3.522 €
Dirulaguntza					
Taldeei Laguntza					
Aurrekontua	5.409 €	5.409 €	6.130 €	3.100 €	3.100 €
Gastua	2.535 €	6.117 €	3.005 €	3.100 €	3.100 €
Dirulaguntza					
Beste Batzuk					
Aurrekontua	21.035 €				
Gastua			21.035 €		
Dirulaguntza					



▶ Se ha preparado el borrador del Plan para la Prevención en el Uso de Drogas. Hasta ahora estos planes se realizaban para tres años, pero ante el cambio de ley, se organizan para cinco años.

▶ Para realizar el actual plan se ha tenido en cuenta el contenido de la ley respecto a este tema y se ha realizado un diagnóstico de la situación, en base al cual se concretarán las acciones de los próximos cinco años, se especificarán los plazos, recursos y presupuestos necesarios y se decidirán la organización y la coordinación.

▶ Tras analizar los planes de prevención de años anteriores, se ha llegado a la conclusión de que es necesario reforzar la prevención tanto a nivel escolar como familiar. También es muy importante atender a las diferentes situaciones, condiciones y necesidades de mujeres y hombres en la elaboración y aplicación de programas preventivos.

▶ La misión del III. Plan de Prevención de Drogas coincide con la misión del V. Plan de la Comunidad Autónoma: ambos luchan por reducir los usos problemáticos de las drogas.



Una política social activa en medio de una gran transformación urbana

La gran transformación urbana que Bergara está conociendo queda patente con sólo citar los temas que tenemos entre manos: tranvía, construcción de viviendas, rehabilitación del Palacio Gaviria, colector y dos depuradoras de aguas residuales, demoliciones en Zubieta, gestiones en torno al Seminario, gestión de suelo industrial, construcción de nuevos parking, nuevo equipamiento deportivo, nueva sede del Instituto Miguel Altuna... Relacionándolos, uno se da perfecta cuenta de la importancia de los proyectos que estamos abordando, y puedo asegurar que en estos momentos tenemos en estudio otro gran número de planes que se están gestando y pronto verán la luz.

Cobra especial relevancia el colector de aguas residuales, cuyas obras han generado algunas molestias hoy superadas, pero podían haber sido mayores si el Ayuntamiento no hubiera intervenido para el cambio de su trazado. La construcción de la depuradora va a suponer una mejora cualitativa en nuestras condiciones de vida. Asimismo, provocará la mejora inmediata del tan necesitado río Deba y su hábitat.

La depuradora de Mekolalde la financia el Gobierno Vasco y su costo total, incluyendo el colector que atraviesa Bergara, es de 31 millones de euros. Está previsto que estará lista en el plazo de 1 año. Por otro lado, la depuradora de Epele la construirá el Estado, por tratarse de una inversión de interés general, cuya cuantía asciende a un total de 32 millones de euros a ejecutar en 48 meses.

Pero detrás de estas obras se encuentra el objetivo, razón o fundamento de todas nuestras acciones, que no es otro que mejorar el bienestar y la calidad de vida del el/la ciudadan@ de Bergara.

En la vertiente cultural previa adquisición a Kutxa y remodelación, inauguramos el bajo ubicado en el Palacio Aroztegi, que con su puerta magníficamente restaurada ha posibilitado una bonita sala de exposiciones.

En lo social hemos elaborado el Plan de Prevención de Drogodependencia o Prevención de Drogas Bergara 2005-2009, fruto de un intenso y profundo trabajo del área social del Ayuntamiento y de otros colectivos del municipio. Son muchas las familias de Bergara que han conocido y conocen el azote de la droga. El plan es ambicioso e implica tanto al ámbito familiar, escolar y laboral, como también a los agentes públicos y privados (jóvenes, padres y Ayuntamiento).

Con el entusiasmo e ilusión de estar trabajando para la transformación y mejora de Bergara, nos situamos en un abrir y cerrar de ojos ante las fiestas de Pentekosteak 2005. Es tiempo de disfrutar.

JAI ZORIONTSUAK GUZTIO!!!



Victoriano Gallastegi ■

Gizarte arloan jarduera eginkorra eta hirigintzan eraldaketa handia

■ Bergara, hirigintza eraldaketa izugarria pairatzen ari da; Zubieta kaleko eraistea, lur industrialaren kudeaketa, Seminarioren kudeaketa, aparkaleku berrien erai-kuntza... Proiektu oso garrantzitsuak hauek, eta beste asko esku artean ditugunak.

■ Ur zikinen kolektorearen lanek eragozpenak sortu dituzte herritarren artean, baina gehiago izan zitezkeen, Udalak trazadura aldatzeko pausoak eman ez balitu. Mekolaldeko araztegia eta kolektorea Eusko Jaurlaritzak ordainduko ditu, 31 milioi eta Epelekoa Gobernu Zentralak ordainduko du, 32 milioi.

■ Kultura mailan, Aroztegi erakusketa aretoa inauguratu dugu, XVI. Mendeko ate errenazentista guztiz eraberritu ondoren. Gizarte arloan, Drogen Prebentziorako III. Egitasmoa prestatu dugu.

■ Gure helburu garrantzitsuena Bergarako biztanleriaren bizi-kalitatea hobetzea da. Bergara eraldatzeko egiten ari garen esfortzuak ematen digun pozarekin, Pentekoste Jaiak 2005era heldu gara;

JAI ZORIONTSUAK GUZTIO!!!

[AGENDA]

PENTEKOSTE JAIK 2005

Maiatzak 13, ostirala

20:00 Jaien hasiera, etxafleroak eta BITORIANATXOREN JAITSIERA San Martin plazan. Segidan, UDAL MUSIKA BANDAREN eta ELEKTROTUNA bandaren KALEJIRA, hiriguneko kaleetan. Iluntzean BARRAKEN IREKITZEA, eta TXOSNEN IREKITZEA.

22:30 KONTZERTUA Bideberrin Sharon Stoner, Imuntzo eta Beloki, Harrikada eta Deskontrol musika taldeekin

23:00 PIXPILA DISKO BUSAK festa-giroa ekarriko du San martin plazara. Drag Queenak, gogoak, DJak...

Maiatzak 14, larunbata

09:00 XXV. HAUR ETA GAZTEEN PLASTIKA-SARIKETA, Beart Bergarako Arte Elkartek antolatuta, Bolu kaleko egoitzan.

10:00 DIANA. Bolutik, losu eta lokin soinu-joleak. Labegarietatik, Kobok dultzaineroak eta Oxirondotik, Udal Txistulari Banda.

11:00 ATLETISMOKO FROGA KONBINATUAK Agorrosingo kirol gunean.

11:30 Herriko elkarten arteko BAKAILAO-LEHIAKETA San Martin plazan, Lacor-en laguntzarekin eta losu eta lokin trikitilariak alaituta.

13:00 Haur eta gazteen plastika-lehiaketako SARI BANAKETA, Beart Arte elkartearen egoitzan.

16:30 Yarleku taldearen "NUMENAK" haurrentzako kale antzerkia San Martin Agirre plazan.

17:45 Haurrentzako BONBA JAPONIARRAK San Martin plazan.

18:30 ERRALDOI, KILIKI ETA BURUHANDIEN KONPARTSAREN KALEJIRA Udal Txistulari bandak eta Kobok Gaiteroek lagunduta.

20:30 MICKENSY'S Clan Band talde eskoziarra San Martin plazan.

22:30 KONTZERTUA Bideberrin Kloakao, Vhåldemar, Black Sheeps eta Obligaciones taldeekin.

23:00 DANTZA LATINOEN PENTEKOSTEETAKO 1. LEHIAKETA San Martin plazan. Gero, Montesblancos taldearekin DANTZALDIA.

Maiatzak 15, igandea

08:00 SOKAMUTURRA San Martin plazan, Elgoibarko dultzaineroek animatuta, ondoren, ALBORADA Udal txistulari Bandarekin.

10:00 "LXX. Pentekoste Saria" TXIRRINDULARI LASTERKETA Lokatza Ziklismo Eskolak antolatuta. Irteera, San Lorentzo auzotik.

11:00 MEZA NAGUSIA San Pedro Parrokian. Udal korporazioa mezetara joango da, Udal Musika eta Txistulari Banden laguntzarekin.

12:00 XXVIII. EUSKADIKO DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA San Martin plazan Abarka dantza elkarteak antolatuta.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua Espoloian.

16:00 HAUR ETA GAZTETXOENDAKO ESKULAN TAILERRAK Munibe plazan, eta XAKE AZKARREKO txapelketa, Ipintza Institutuan.

17:00 PILOTA PARTIDA PROFESIONAL ikusgarriak Udal pilotalekuan.

17:30 XXVIII. EUSKADIKO DANTZA SUELTOKO TXAPELKETA San Martin plazan.

19:30 KATXI BACHE DE CUCHINA publiko osoari, eta batez ere sukaldaritza gustoko dutenei zuzendutako kale antzerkia Munibe plazan.

23:00 DANTZALDIA San Martin plaza, Tarantella taldearekin.

**Maiatzak 16, astelehena
Koadrilien Eguna**

08:00 SOKAMUTURRA San Martin plazan eta Barrenkalen. Ondoren, HAMARRETAKOA (txorizo pintxoak) eta koadrilien elkarteak.

10:30 PLATER TIRAKETA Gorlako Irubide zelaian, Ollagorria taldeak antolatuta.

11:30 MARIACHI GARIBALDI taldearekin DOINU MEXIKARRAK entzun ahal izango dira Bergarako kaleetan.

12:00 Koadrilien aurkezpena eta jokoen hasiera San Martin plazan. 16 urtetik 102 urte artekoak parte hartu dezakete.

12:30 KONTZERTU MEXIKARRA Espoloian, Mariachi Garibaldi taldearekin.

14:30 HERRI BAZKARIA: paella erraldoia. Bazkal ostean, EUSKAL KANTUEN saioa.

17:00 JOKOAK berriro, bergararrak sasoian gaudela erakusteko, musikaz lagunduta.

18:30 PAZKOAK 2005 MISS ETA MISTER JATOR LEHIAKETA. Saria: 150 €ko erosketa txartel bana Bedelkarreko dendetan gastatzeko.

19:00 Koadrila irabazleari SARI-BANATZEA plazan eta "BERGARA HIRIA" pilota-txapelketako finalak Bergarako Udal pilotalekuan.

19:30 KALEJIRA Xafre eta Zarra eta losu eta lokin trikitilariekin. Nekatzen direnean Incansables txarangakoek hartuko diete erreleboa.

22:30 KONTZERTUA Bideberrin Sagarroi, Holy Sheep, Aby Kem eta Skunk taldeekin.

23:00 ERROMERIA plazan TAPIA ETA LETURIA taldearekin eta lokin Otamendi dantzariarekin, eta CAMP DANTZALDIA Espoloian.

**Maiatzak 17, asteartea
Umeen Eguna**

08:00 SOKAMUTURRA San Martin plazan eta Barrenkalen, Elgoibarko dultzaineroen eta Incansables txarangaren animazioarekin.

11:00 Pentekosteetako kartel-lehiaketara aurkeztutako KARTELAK ERAKUSGAI izango dira, Udaletxeko arkupeetan 14:00ak arte.

11:30 HERRI-TRENA. Irteera guztiak Fraiskozuri plazatik egingo dira. Arratsaldean, 17:00etatik aurrera berriz ere.

11:30 HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan. Gaztelu puzgarriak, kars-ak,... izango dira 13:30ak arte.

12:30 HERRI KIROLAK ERAKUSTALDIA San Martin plazan. Aurkezle-lanak Gabixolak egingo ditu.

16:00 SAKAekin umeentzako jolasak plazan. Poniak, zezentxoak...

17:00 PILOTA-PARTIDA PROFESIONALAK Udal-pilotalekuan eta HERRI-TRENAREKIN txango turistikoa egiteko aukera.

17:00 HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan. Ixterakoan, Incansables txarangarekin, DENOK PLAZARA KALEJIRAN!

20:15 GAZTETXOENTZAKO KONTZERTUA BETIZU taldearekin San Martin plazan. Mugitu eskeleto hori!

21:30 EUSKAL KARAOKE ETA DJ FESTA San Martin plazan, Txatxilipurdi taldearen eskutik.

24:00 BITORIANATXOREN IGOERA eta AGURRA, eta Pentekoste jaien amaiera San Martin plazan Incansables txarangarekin.



Nuevos puestos de trabajo

El Ayuntamiento convocará nuevos puestos de trabajo. Los puestos a convocar serán, dos auxiliares administrativos, un oficial de albañilería y un peón.

Goiko Estazioko Eraikineko lanak esleitu dira

Construcciones Pedro Iparraguirre S.L. izango da Goiko Estazioko Eraikineko lanak burutuko dituen enpresa. Obrak egiteko erabiliko den aurrekontua 243.000 eurokoa da.



Hiru/lau hilabetetan bukatuko dira lanak eta musika entseietarako 10 lokal prestatuko dira.

Campaña dirigida a los dueños de perros para una mejor limpieza de las calles

El Ayuntamiento prepara una campaña de concienciación para los dueños de perros con la que se pretende mejorar la limpieza de las calles.

A tal fin, además de enviar información sobre el contenido de esta campaña, se van a repartir bolsas y pinzas entre los dueños de perros para facilitar la labor de recoger los excrementos de sus mascotas y animarles a hacerlo ya que resulta muy desagradable ver las calles llenas de estas "sorpresas".

1999	2000	2001	2002	2003	2004
2680 isun	3501 isun	3103 isun	3172 isun	2153 isun	1628 isun



1628 isun jarri ziren 2004an

Indarrean dagoen trafikoari buruzko arategia hausteagatik, 1.628 isun jarri zituen Udaltzaingoak joan zen urtean; 2003. urteko datuekin konparatuta, %34 isun gutxiago hain zuzen ere.

Isun huetatik 1.002 (%61,55) Bergarako biztanleei dagokie, gainontzeko 626 (%38,45) kanpoko gidariei dagokielarik.

Kaleei dagokienez, herriko 10 kalek jaso zuten isun gehienak: Ibargarai 205, Irizar 175, Komenio 72, Masterreka 65, Ariznoa plaza 64, Martoko 61, Ramón María Lili 53, Zurradero 52, Arruriaga 52 eta Arane erreka 49.

Kale hauetan pilatzen dira herrian jarritako isunen %52,08a, guztira 848 baitira. Hamarretik 8 kale erdialdekoak dira, trafiko gehien jasaten dutenak eta aparkalekuen falta gehien nabaritzen dutenak. Arau hausteei dagokionez, honako hauek izan dira gehien salatutakoak: espaloian aparkatzea 315, debekatuan aparkatzea 237, galtzadan aparkatzea 198, taxi geltokian aparkatzea 198, baimendutako denbora gaidintzea 133, zirkulazioa ostopatuz aparkatzea 106, zama-lanak egiteko gunean aparkatzea 83, oinezko pasabidean aparkatzea 59, elbarrituen erreserban aparkatzea 75, ibi iraunkorretan aparkatzea 71 eta bigarren ilaran aparkatzea 46.

2004an 14 ibilgailu eraman zituen garabiak. Udaltzaingoak jarritako trafiko isunen aurka 168 zuribide orri aurkeztu ziren; hau da, jarritako isunen %10,32a. Hauetatik 34 onartu egin dira eta 134 deuseztatuak izan dira.

Subida a Gorla

El día 14 de mayo, sábado, se celebrará como cada año, la subida a Gorla. Desde el Ayuntamiento se ruega la colaboración ciudadana ante los diversos cortes de calles necesarios para el desarrollo de la prueba.

Los patios de la escuela San Martín y Martínez de Irala se van a habilitar como aparcamiento.

La calle Masterreka servirá como paso a los residentes. Por lo tanto paciencia para ese día...

Zubieta eta Bideberri arteko bidea zabaltzen ari dira

Zubieta leko eraikina bota da, errepidea zabaldu ahal izateko. Obra hau, Udala eta Azkoiber, S.A. enpresaren arteko hitzarmenaren ondorioz egin da. Gutxi barru, kale honetako 3. zenbakia ere botako da, Pedro Igartuarekin beste hitzarmen bat sinatu ondoren. Horrela, herri barruko komunikazioa hobetzea lortuko da.



Gabiria Dorrea era-berrituko da

Tavex-ek orain arte San Antonion izan duen pabilioia bota ondoren, etxeak eraikiko dira solairu horretan. Udala eta Tavex-en artean sinatutako hitzarmenaren ondorioz, Gabiria Dorrea eraberrituko da eta bertan kokatuko dira enpresa honetako bulego berriak.

XV. mendekoa den Gabiria Dorreak Monumentu Kalifikatu izendapena du eta gaur egun oso egoera txarrean dago. Administrazioak berritze lanen %50-a ordainduko du eta gainontzekoa Tavex-en esku geldituko da. Eraikinaren erabilpena dohainikoa izango da 30 urtetarako eta beste 10 urtetara luzatu ahal izango da.



Artekale y Arruriaga cerradas por obras

Debido a las obras de urbanización, parte de la zona centro del municipio va a permanecer cerrada hasta el otoño.

Además de realizarse los trabajos de mejora, Artekale va a ser sometida a un estricto control arqueológico, ya que en 1998 fue declarada de interés arqueológico junto a Goenkale y Barrenkale. Estas tres calles fueron el origen de Bergara en el siglo XIII.

Artekale, Goenkale, Barrenkale y Arruriaga forman parte del casco histórico y a su vez están declaradas Conjunto Monumental por el Gobierno Vasco, desde el año 2003.



Las obras de contención de la ladera de Urteaga siguen su curso

El pasado 27 de abril dieron comienzo las obras de contención en la ladera de Urteaga.

Tras el corrimiento de tierra producido hace algunos meses, se están tomando las medidas necesarias para solucionar el problema y así evitar que esto vuelva a suceder.

Durante la primera fase se procederá al sostenimiento de la plataforma del antiguo ferrocarril, construyéndose un muro anclado por debajo de dicha plataforma. Esta primera parte de las obras cuenta con un presupuesto de 1,7 millones de euros y se realizará en 7 meses.

Para la segunda fase se han destinado 2,5 millones de euros y en ella se emplearán 6 meses. Esta parte consistirá en el sostenimiento del resto de la ladera, un trabajo complicado dado el terreno.

El tranvía despierta un gran interés

La exposición del tranvía que ha estado expuesta en el Salón de Plenos del ayuntamiento, ha tenido gran éxito y ha despertado curiosidad entre los bergareños. Se han producido numerosas visitas.

Además de mostrar al público los detalles del futuro tranvía, el Consistorio ha presentado once alegaciones al proyecto del mismo.

Entre las alegaciones presentadas por el Ayuntamiento, la más importante es el trazado alternativo presentado por el Consistorio para evitar en lo posible trastornos en el tráfico interno de Bergara.





BERGARAKO UDALA

(IKUSTEKOAK)



01



03



04



05



06



07



01
Kolektorearen obren kalteak murrizteko, Udalak bere trazaketa aldatzeko gestioak burutu ditu.
Para disminuir las molestias generadas por las obras del colector, el Ayuntamiento ha gestionado la modificación de su trazado.

02
Apirilean inaguratu zen Osintxuko zubi berria.
El nuevo puente de Osintxu se inauguró en abril.

03
Pentekoste jaiak Ion Iraegiren kartelak iragartzen ditu aurten.
El cartel de Ion Iraegi anuncia las fiestas de Pentecostés de este año.

04
Barraketan bueltatxo bat emateak 1,50 euro balio du eta Umeen Egunean, bi buelta, euro bat.
Una vuelta en las barracas cuesta 1,50 euros y en el Día de los Niños, dos vueltas un euro.

05
Urteagako lur jauziak konpontzeko lanak aurrera doaz.
Las obras de contención de la ladera de Urteaga avanzan abuen ritmo.

06
Hasi dira Ibargarain etxe berriak egiteko lanak.
Ya han comenzado las obras de construcción de las nuevas casas en Ibargarai.

07
Epaitegiko berritze lanak bukatu dira dagoeneko.
Las obras de restauración del Juzgado ya han finalizado.

08
Orain Harrizuri kaleko alde bietan aparkatu daiteke.
En la calle Harrizuri se puede aparcar a ambos lados.

09
Bergarako pilotalekutik etxe guztietara hel-tzen da pilota.
Desde el frontón de Bergara la pelota llega a todos los hogares.

10
Hitzarmena sinatu ondoren, Zubieta kaleko 1 zenbakia bota da.
Tras la firma del convenio, se ha derribado el número 1 de la calle Zubieta.



Garapen iraunkorra Tokiko Agenda 21aren bitartez

Debagoieneko Udalek herrien garapen ekonomiko eta soziala ingurumenaren babes eta errespetuarekin bateragarri egingo dituen tokiko eta eskualde mailako garapen eredu baterantz abiatzeko konpromisoa hartu dute. Etorkizun hau lortu ahal izateko, Garapen Iraunkorrean oinarriturik, Debagoieneko udalerrietan Tokiko Agenda 21 prozesua jarri da martxan. Tokiko Agenda 21 Euskadiko eta munduko beste udalerrri askotan garatzen ari den prozesu bat da.

3 puntu nagusitan oinarritzen da:

- Ingurumenaren errespetua eta babesa.
- Berdintasuna eta giza justizia.
- Garapen ekonomiko orekatua.

Helburu hauek lortzeko, Udaltalde 21 Debagoiena osatu da, hurrengoan parte hartzearekin:

- Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñatiko Udalak.
- Debagoieneko Mankomunitatea.
- Eusko Jaurlaritza, Ingurumen Jarduetarako Sozietate Publikoa den IHOBEn bitartez.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorraren Departamendua.

Bergara dagoeneko hasi da Agenda 21a garatzen, eta horretarako herritarren partaidetza eta konpromisoa ezinbestekoa da. Bi bilera ireki izan dira, herriko agente ekonomiko, sozial, kultural etabarrek herriaren orainaldiari eta etorkizunari buruz solasean jarduteko. Udalari dagokionez, proiektu honetan sail guztiek hartzen dute parte, Agenda 21eko akzio guztiak koordinatu eta bultzatzeko. Egun hauetan, egoeraren diagnostikoa egin dabil, eta horretarako beharrezkoa den ingurune-inpaktuko txostena ere. Ondoren, Iraunkortasun Diagnostikoa egituratu da, eta gero, betebeharreko ekintza plana diseinatu helburuen eta beharren arabera.

Azken fasean, neurri zehatzak praktikara eramango dira.

Informazio gehiago jasotzeko, zailentzaz argitzeko, iradokizunak azaltzeko... Udaleko Ingurumen Sailera jo 943 77 91 68 telefonoan edota Debagoieneko Mankomunitatean: 943 79 33 99 telefono zenbakian eta www.debagoiena.com web orrian.



Agenda Local 21 Escolar

El Ayuntamiento se ha reunido con los distintos centros educativos animándoles a crear comisiones de sostenibilidad en los propios centros e impulsar culturas sostenibles en las escuelas. En mayo, concluye el plazo para que presenten un programa de actividades al Gobierno Vasco y así disponer de ayudas económicas y asesoramiento técnico. Estas ayudas, se gestionan a través de CEIDA, una red de equipamientos públicos de apoyo al profesorado y a los centros escolares, que coordina proyectos de educación ambiental. El objetivo es trasladar la filosofía de la Agenda Local 21 a las escuelas, para que los más pequeños aprendan a respetar el medio ambiente desde la infancia. El Ayuntamiento por su parte se ha comprometido a ayudar en todo lo que esté en su mano a las escuelas que acepten la propuesta brindada desde el Consistorio.

Irabazi asmorik gabeko elkar- teentzat dirulaguntzak eska- tzeko deialdia martxan

Gizarte Zerbitzuen arloan diharduten elkar-teentzako 2005eko dirulagun-
tzen Baldintzen Plegua onartu da. Helburua da Bergarako Udalerrian
gizarte zerbitzuen arloan diharduten irabazi asmorik gabeko elkar-teei,
2005. urterako dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea. Laguntza
hauetarako udal aurrekontuan 21.827,31 euro izendatu dira.

ELKARTEEN BETEBEHARRAK:

- Legalki eraturako elkar-tea izatea, irabazi asmorik gabekoa, gizarte zer-
bitzuen arloan diharduena, egoitza Gipuzkoan duena, eta ez dagoena
azaroak 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. zatiek adierazita-
ko kausaren baten pean.
- Bergarako Udalerrian garatzea diru-laguntza jasoko lukeen jarduer-a
programa.
- Zuzenean erantzutea Bergarako Udalerriko taldeek gizarte zerbitzueta-
ko alorrean egindako eskaerei.
- Jarduerak nagusiki talde hauei zuzentzea: bazterketa arazoak dituzte-
nei, minusbaliatuei, hirugarren adinekoei eta zerbitzu sozialen beharra
duten beste batzuei.
- Herritarren arteko elkartasuna sustatzea.
- Antolatutako jardueretan Udalerriko bizilagunen parte-hartzea bultzat-
zea.
- Zehaztutako helburuak beteko direla bermatzea, eta horretarako beha-
rrezkoak diren azpiegitura eta esperientzia egiaztatzea.

ESKAERAK

Dirulaguntza hauek eskatzeko baldintzen plegua maiatzaren 9an argitara-
tuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, xehetasun guztiekin.

Energiaren Euskal Erakundeak eta Udalak eraginkortasun energeti- koa aztertzeako akordioa sinatu dute

EEE-k (Energiaren Euskal Erakundea) eta Udalak Bergarako
eraginkortasun energetikoa aztertuko dute elkarlanean.
Udalak, bere esku dituen datu energetikoak EEE-ren eskura
utziko ditu, eta erakunde honek, laguntza teknikoa eskainiko
du. Akordio honekin, energia era eraginkorrenean sortzea nahi
du Udalak eta horretarako azterketa eta ikerketak beharrez-
koak dira.

Beste udalerrri batzuetan egindako ikerketaren ondorioz, erai-
kin publikoetan eguzki energi-az baliatzeko plakak jarri dira, adi-
bidez. Gurean, horrelako instalakuntzak laister ikusiko ditugu,
igerileku berrietako proiektuak badaramalako eguzki energiari
onura ateratzeko instalakuntza.

EEE, 1982. urtean sortu zen EAEko energiaren alorreko ara-
zoei aurre egiteko eta geroztik, energia-politikaren erreferentea
izan da EAEn, eta bere jarduna hiru ardatz nagusiren inguruan
kokatu da; betiere, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta
ingurune naturala babesteko kezka gogoan izanik. Jarduteko
ardatz nagusiak hauexek dira:

- Aurreztearen eta energia-eraginkortasunaren aldeko neurriak
sustatzea.
- Energia baliabide berriztagarrien ustiapena bultzatzea.
- Gas naturalaren garapena.

Informatika Ikastaroa

Udaleko Enplegu Sailak informatika ikastaroa antolatu du maiatza-
ren 23tik ekainaren 24ra. Izena emateko epea, hile honetako
19an, osteguna, amaitzen da.

- Gaia: Bergarako Udalak, Enplegu sailetik 50 orduko Informatika
ikastaroa eskainiko du.
- Arloak: Windows eta Microsoft Word Hasiera.
- Ikasle kopurua: 12 pertsona talde bakoitzeko.
- Fetxak: Ikastaroa maiatzaren 23tik ekainaren 24ra eskainiko da.
- Matrikula: Izena ematerakoan zehaztutako den kontu korrontean
30 euroko diru-sarrerara egin beharko da.
- Izena emateko epea eta tokia: maiatzaren 9tik 19ra bitartean,
goizeko 9:00etatik 13:00etara, Udaletxeko Enplegu saileko bule-
goetan.

Negozio ideiak sortzeko mintegiak

Norentzat: Negozio ideia bat duten edozeinentzat
Noiz: Maiatzak 23,24,25.

Tokia: Arrasate, Agentziaren lokalean.

Ordutegia: 9:00etatik 14:00etara, guztira 15 ordu.

Antolatzaileak: Debagoieneko Garapen Agentzia, eta
Arrasate, Bergara eta Oñatiko Udaletako Enplegu zerbitzuek.
Partaidetza: Dohainik, eta Plaza mugatuak.

Izena ematea beharrezkoa da:

- Debagoieneko Garapen Ekonomikorako Agentzia. 943 79
30 90 telefonoa.
- Arrasateko Udaleko Enplegu zerbitzua. 943 79 09 00.
- Bergarako Udaleko Enplegu zerbitzua. 943 77 91 24.
- Oñatiko Udaleko Enplegu zerbitzua. 943 03 77 00.



Aroztegi jauregiko erakusketa aretoak ateak zabaldu ditu

Maiatzaren 12an Aroztegi etxeko behe solairuan Erakusketa Areto berriak ateak zabaldu ditu. Bertan, Udaleko agintariak, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak, arte eta kultura mundukoak eta bertara gerturatu ziren herritarrek hartu zuten parte.

Aroztegi Jauregia XVI. mendekoa da eta Bergarako eraikin garrantzitsuenetakoa. Udalak, herriak emandako pintore onenetariko baten lanekin inauguratu du; Abdon Juaristiren obrarekin hain zuzen ere. Erakusketan, artista honen lanak eta bere garaipena ikusteko aukera dago. Helburua, urte osorako erakusketak programatzea da, eta lan hau burutzeko Beart herriko artisten elkartearen laguntza izango du Udalak. Erakusketa aretoak, arte espresio era guztiak jasoko ditu: eskultura, argazkigintza, pintura, keramika... baita formatu txikiko kontzertuak eta hitzaldiak ere.



■ ORDUTEGIA ■

- > Maiatzaren 13tik 17ra, 12:00etatik 14:00etara
- > Maiatzaren 18tik ekainaren 12ra:
Astegunetan: 18:00etatik 20:30etara
Asteburuetan: 12:00etatik 14:00etara
18:00etatik 20:00etara

Gero eta bazkide gehiago Liburutegian

Apirilaren 23an, Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu zen eta Udal Liburutegiak udalletxeko arkupeetan eskaini zituen ohiko zerbitzuak, hilaren 22 eta 23an.

Udal arkupeetan 105 bazkide gehiago eta 252 mailegu egin ziren. Egun normal batean batz bestekoa 100 mailegutakoa izaten da. Beraz, lortutako emaitza oso positiboa da.

Aldi berean, bisita gidatu ugari egin dira liburutegira, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzakoak batez ere.

Hala ere, liburutegiak egunero eskaintzen ditu dohaineko zerbitzu hauek; beraz, jendea animatu dadila bertara hurbiltzen eta bazkide eginez lortzen diren abantailak ezagutzen.



Cursos de euskara para inmigrantes

El Servicio de Euskara del Ayuntamiento y el Euskaltegi Municipal han organizado cursos de euskara para inmigrantes adultos. El plazo de inscripción se abrió en febrero y a raíz del mismo se formaron dos grupos para los días laborables. Asimismo, se recogieron peticiones para recibir clases los domingos, y la Comisión de Euskara ha decidido poner en marcha un grupo ese día. Los cursos se imparten mediante el material AISA, especialmente creado por HABE con la finalidad de facilitar a los inmigrantes el aprendizaje del euskara y su incorporación a la sociedad vasca.

Cursos de refuerzo para niños y jóvenes

La Comisión de Euskara impulsa y subvenciona, asimismo, cursos y actividades extraescolares de refuerzo de euskara, para aquellos alumnos y alumnas que poseen un nivel inferior al habitual, ya sea por ser inmigrantes o por carecer de un entorno familiar o social euskaldun.

Estas actividades se ofrecen tanto durante el periodo escolar como en cursos intensivos en septiembre.

Actualmente, durante el curso 2004-05, están participando en estas actividades un total de 50 niños y jóvenes de entre 5 y 16 años.

Udal webguneko atal berria: kirolak

Udal webguneak atal berri bat jarri du martxan. Herrian kirolek duten presentzia eta garrantzia kontutan hartuz, kirol jardueren berri eman nahi da www.bergara.es webgunean. Mota anitzeko informazioa ageri da atal berri honetan: zerbitzuak, egutegi eta ordutegiak, tarifak, kirol instalazioak, argazkiak, dirulaguntzak...



Herritarren %36,9 euskaraz, kalean

Urtero bezala, 2004ko azaroan, Udalak euskararen kaleko erabilera neurtu zuen. Neurketa 5 egunetan zehar egin zen Bergarako 3 ibilbidetan zehar eta guztira 4.215 lagunengatik elkarriketak neurtu ziren. Jasotako datuen arabera, egun horietako euskararen erabilera %36,9koa izan zen, adin guztiak kontuan hartuta.

Adinka, une honetan 14 urtez azpikoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%60 inguru), jarraian 15-25 urte bitarteko gazteak (%50 inguru) eta ondoren helduak eta zaharrak (%30 inguru). Azken 15 urteetan izandako bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da gazteetan izandako igoera eta zaharretan izandako jaitsiera, bietan 20 puntu ingurukoa.

649 Consultas en la Oficina de Turismo

Desde el 17 de marzo al 17 de abril, periodo en el que la oficina de turismo permaneció abierta, se realizaron 649 consultas; 48 más que en la misma época del pasado año. 98 procedían de Bergara, 224 de la Comunidad Autónoma, 292 del Estado, mayoritariamente de Cataluña, Galicia y Cantabria, 23 de Europa, 8 de América, 2 de Asia y 2 de Oceanía.

También se realizaron 19 visitas guiadas con 115 personas.

Deporte educativo: un derecho infantil

El Ayuntamiento junto con los centros escolares está desarrollando un programa de deporte, con el fin de ayudar en el buen desarrollo de los niños.

Sus objetivos son: participación abierta e igualdad de oportunidades, pluralidad en el deporte y conjunción de los objetivos del deporte con los objetivos de la enseñanza escolar. Como fiesta final el jueves día 12 se celebraron diversas actividades tanto para benjamines como alevines. Con estas actividades se pretende promover la salud, el rendimiento, el deporte participativo y el recreativo.

Aviso: Con motivo de las fiestas, el polideportivo permanecerá cerrado los días 16 y 17 de mayo.

Rufina Olasagasti eta Nagore Narbaiza, Hezkuntzaren aldeko lan etengabea

NAGORE ERRELEBO KONTRATO BATEKIN HASI DA UDALEAN LANEAN, RUFINAK URTE ASKOTAN LAN UGARI EGIN ONDOREN, HEMENDIK AURRERA %15EKO LAN JARDUNA BETEKO DU ETA. BIAK HEZKUNTZA-KO UDAL TEKNIKARIAK DIRA ETA ARLO HONI BURUZ HITZ EGIN DUGU EUREKIN.

- ▶ **Rufina, zenbat denbora egin duzu Udalean lanean?**
14 urte egin ditut.
- ▶ **Zenbat kargu izan dituzu urte hauetan?**
Lehen, Hezkuntza Kulturaren barnean zegoen eta bertan aritu izan naiz lanean. Duela urte pare bat Hezkuntza indartu egin zen eta bi teknikari, administrari bat eta atezain bat izendatu ziren.
- ▶ **Nola ikusi duzu Udalaren bilakaera hezkuntzarekiko?**
Kultura izan da nere lana, ez naiz hezkuntzan oinarritu. Hala ere, herrian dauden talde eta elkarteek erreztasunak eman zaiela uste dut. Kultura indartu eta erabaki garrantzitsuak hartu dira.
- ▶ **Hezkuntza hobetzeko al duzu gaur egun?**
Euskal Herrian pausoak eman ditugu eta eskolatik kanpo ere gauza asko egiten dira. Dena bezala, hezkuntza bizitzara moldatu behar da.
- ▶ **Nagore, esperientziarik al duzu udal munduan?**
Bergarara etorri aurretik urte bete egon naiz Berrizen Kultur teknikari bezala.
- ▶ **Nola ikusten duzu hezkuntza?**
Aldatzen doa, denbora gutxian gainera. Hezkuntza sistema gizartearekiko egokitu behar zaio eta orain arte alderantziz izan da. Niretzat hori da gelditzen den erronkarik handiena.
- ▶ **Lan honetan ze asmorekin hasten zara?**
Puntu politean hartu dut; lanpostua oraindik ez dago oso definituta eta nik hori definitzen parte hartu dezaket. Horrek alde onak eta alde txarrak ditu; hau da, lan asko egin behar da. Proiektu hau taldean eraman behar da aurrera, teknikarien, zinegotzien eta danon iritzia kontuan hartuz.





“Gomendatzen dizut” sariak badu irabazlea

Gazte Bulegoak erabaki du dagoeneko sariaren irabazlea: 17 urteko Ana Moñux izan da aukeratua. Anaren gomendioa, Plentziako Aterpetxeari buruz izan da, gomendio mota, alojamendua eta data Aste Santua izan direlarik. Gazte honek eman dituen arrazoiak honako hauek dira: oso herri polita dela, Bilbotik oso gertu dagoela eta aterpetxeak eskaintzen dituen zerbitzuak, instalazioak eta kokagunea primeran daudela.

Los bergareses realizan la mayoría de sus compras en Bergara



El Ayuntamiento ha realizado un estudio sobre las costumbres de los bergareses a la hora de realizar sus compras. Este estudio forma parte del Plan Especial de Revitalización Comercial (PERCO) impulsado por el Gobierno Vasco.

Se acude a las ciudades mayoritariamente a la hora de comprar ropa y calzado; aún así, el 67'1% de este gasto se realiza en el municipio.

Tras analizar las conclusiones

desprendidas de este informe, se han marcado una líneas de actuación para fomentar los servicios del pequeño comerciante y potenciar la calidad comercial de Bergara.

A su vez, se pondrán en marcha campañas para promover la Asociación de Comerciantes y las ventas en el municipio.

También ayudarán las mejoras previstas en el plano urbanístico, como colocación de mobiliario urbano.

La variante entre Beasain y Durango llegará a Bergara en el 2010

El tramo de la variante entre Ormaiztegui y Zumárraga se abrirá en el 2006; a Bergara llegará cuatro años después, en el año 2010. Entre Zumárraga y Bergara se van a construir un total de casi diez kilómetros en los que habrá dos túneles, uno de 900 metros y otro de 250 metros.

La variante va a contar con cuatro carriles durante todo el trayecto, dos para cada sentido. Para realizar el tramo entre Zumárraga y Bergara se ha destinado un presupuesto de 150 millones de euros. Con esta nueva variante se pretende reducir el intenso tráfico actual.

“Egonaldiak familia euskaldunetan”

Aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritzak abian jarri du “Egonaldiak familia euskaldunetan” programa. Ekintza honen bidez, euskara ikasi edo hobetu nahi duenak, zein bertako euskalkia ezagutzea nahi duen pertsonari, familia euskaldun batean hilabete bat edo bi igarotzeko aukera ematen zaio.

Hau aurrera eramateko, hilabeteko egonaldi bakoitzean 580 euro jasoko ditu familia bakoitzak.

Ur kontsumoa Interneten begiratu daiteke

Hemendik aurrera etxe bakoitzean ur kontsumoa kontsultatzeko modu azkar bat dago: www.gipuzkoakourak.com helbidea erabiliz.

Egin daitezken eragiketen artean, jabe aldatetak, kontsumoaren

grafikoak ikusi, ur horniduran alta edo baja eman, eta beste zenbait daude.

Hala ere gestio hauek, 24 orduko telefonoaren bitartez egin daitezke baita ere, 902 30 22 22 zenbakira deituz.

Udalbatzarak hartutako erabaki garrantzitsuenak

Otsailaren 28a

■ Ibargaraiko autobus-geltokian hiri-komun autogarbigarria jartzeko lehiaketa arautuko duen baldintzen plegua onartzea, 34.575 euroko lizitazio oinarriarekin.
Halaber, gune hori asfaltatzeagatik 9.212,93 euroko faktura onartzea.

■ Ubera auzora ura eramateko (2. fasea) proiektu teknikoa eta baldintzen plegua onartzea. Lizitazio oinarria 151.224,86 eurokoa da.

■ Artekale, Arruriaga eta Goenkaleko tentsio txikiko aireko hariak lurperatzeko Iberdrolak aurkeztutako 15.184,45 euroko aurrekontua onartzea.

Martxoaren 18a

■ Deba Goieneko tranbiaren proiektuari hainbat alegazio egitea.

Martxoaren 21a

■ Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basogintzaren Lurraldeko Arlo Planaren hasierako onarpenari alegazioak egiteko Alkateak 2005eko martxoaren 14an emandako Dekretua baieztatzea.

■ Aspe Jugadores de Pelota, S.L. enpresarekin Bergarako udal-pilotalekuan lehenengo mailako eskuko profesionalen partidua antolatzeak hitzarmena onartzeko Alkateak 2005eko martxoaren 3an emandako Dekretua baieztatzea.

■ Osintxu auzoko ikastolaren ezker aldeko zatia birgaitzeko proposamen teknikoa eta baldintzen pleguak, 49.609,26 euroko lizitazio oinarriarekin, onartzea.

■ Masterreka kalean ur-hodia aldatzeagatik aurkeztutako 15.501,13 euroko faktura onartzea.

■ Tavex Algodonera S.A. enpresarekin sinatutako litzatekeen hitzarmena onartzea.

■ San Juan auzoko 11. sektoreko 4.300m²ko lursaila "Mugika Lamariano S.A." enpresari saltzea 186.097 eurotan.

■ Iñaki Arieteleaniz-en atxilotetaren inguruan EAJ-EA eta Aralar-ek aurkeztutako mozioa onartzea.

Apirilaren 5a

■ Azkoiber, S.L. enpresarekin sinatu nahi den hitzarmena onartzea, Udala eraikin osoaren jabe eginez.

Apirilaren 7a

■ Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide Sarearen Lurraldeko Plan Sektorialari alegazioak egitea.

Apirilaren 25a

■ Aranerrekan espaloia berregokitu eta aparkalekuak egokitzeko igeltsaritza-, iturgintza-, eta argiteri-lanen kontratazioa arautuko duten baldintzen pleguak onartzea. Aurreikusitako gastua 76.801,96 eurokoa da.

■ Lesarriko pistari berrak jarri eta arekak eraikitzeagatik 11.828,52 euroko faktura onartzea.

■ Artekale 15etik 29ra arteko karkabako saneamendua berritzeko proposamen teknikoa eta baldintzen plegua onartzea. Lizitazio-oinarria, 22.983,06 euro.

■ Deba ibai ertzean, San Lorentzon, fundizioko barandila jartzeko proposamen teknikoa eta baldintza plegua onartzea. Lizitazio-oinarria 41.159,92 euro. Eta aurrez egin beharreko horma-konponketa 8.983,04 eurotan adjudikatzea.

■ Amillaga 2 ondoko espaloia konpontzeko lanak 11.840,95 eurotan adjudikatzea.

■ Araneke bide publikoa egokitzeko 9.572,20 euroko faktura onartzea.

■ Osintxun espaloia eta aparkaleku berriak eraikitzeko txosten geoteknikoa eta proiektua idazteko adjudikazioa egitea. Kostua, guztira 19.488 eurokoa da.

■ Osintxun edateko ur-hodia jartzeko proposamen teknikoa eta baldintzen plegua onartzea. Lizitazio oinarria 29.461,80 eurokoa da.

■ Estolderi-sarearen kudeaketaren ardura Gipuzkoako Ur Kontsorzioari emateko hitzarmena onartzea.

■ Biztanleen udal-errolaren zuzenketa onartzea.

Acuerdos más importantes adoptados por el Pleno

28 de febrero

■ Aprobar el pliego de condiciones por el que se regirá el concurso para la instalación de una cabina-aseo público autolavable en la parada de autobús de Ibargarai, con una base de licitación de 34.575 euros.
Asimismo, aprobar la factura de 9.212,93 euros por el asfaltado de dicha zona.

■ Aprobar el proyecto técnico y el pliego de condiciones para el suministro de agua al barrio Ubera (2ª fase), con una base de licitación de 151.224,86.

■ Aprobar el presupuesto de 15.184,45 euros presentado por Iberdrola para el soterramiento de los cables aéreos de baja tensión de Artekale, Arruriaga y Goenkale.

18 de marzo

■ Realizar varias alegaciones al proyecto de tranvía del Alto Deba.

21 de marzo

■ Ratificar el Decreto emitido por el Alcalde el 14 de marzo de 2005, mediante el que se efectuaron varias alegaciones a la aprobación inicial del Plan Territorial Sectorial Agroforestal.

■ Ratificar el Decreto emitido por el Alcalde el 3 de marzo de 2005 por el que se aprueba el contrato a firmar con la empresa "Aspe Jugadores de Pelota S.L." para organizar partidos de pelota a mano de profesionales de primera.

■ Aprobar la propuesta técnica y el pliego de condiciones para el reacondicionamiento de la parte izquierda de la ikastola de Osintxu, con una base de licitación de 49.609,26 euros.

■ Aprobar la factura de 15.501,13 euros presentada por la sustitución de los conductos de agua en Masterreka.

■ Aprobar el convenio a firmar con la empresa "Tavex Algodonera S.A.".

■ Vender a la empresa "Mugika Lamariano S.A." la parcela de 4.300 m² del sector 11 del barrio San Juan, en 186.097 euros.

■ Aprobar la moción presentada por los grupos EAJ-EA y Aralar sobre la detención de Iñaki Arieteleaniz.

5 de abril

■ Aprobar el convenio a firmar con la empresa "Azkoiber S.L." por el cual el Ayuntamiento adquiere en propiedad todo el edificio.

7 de abril

■ Efectuar varias alegaciones al Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria de la CAV.

25 de abril

■ Aprobación de los pliegos de condiciones para adjudicar los trabajos de albañilería, fontanería y alumbrado para la renovación de acera y habilitación de aparcamientos en la calle Aranerreka. El coste previsto es de 76.801,96 euros.

■ Aprobar una factura de 11.828,52 euros por la instalación de barreras y la construcción de cunetas en el camino a Lesarri.

■ Aprobar la propuesta técnica y el pliego de condiciones para renovar la red de saneamiento de la carcava entre Artekale 15 y 29. El tipo de licitación es de 22.983,06 euros.

■ Aprobar la propuesta técnica y el pliego de condiciones para instalar una barandilla junto al río Deba en el barrio de San Lorenzo. El tipo de licitación asciende a 41.159,92 euros. Además, adjudicar el arreglo previo del muro en 8.983,04 euros.

■ Adjudicar la reparación de la acera junto a Amillaga, 2 en 11.840,95 euros.

■ Aprobar una factura de 9.572,20 euros por la adecuación del camino público de Arane.

■ Adjudicar la elaboración del informe geotécnico así como de la redacción del proyecto para construir una acera y nuevos aparcamientos en Osintxu. El costo asciende a 19.488 euros.

■ Aprobar la propuesta técnica y el pliego de condiciones para instalar un conducto de agua potable en Osintxu. El tipo de licitación es de 29.461,80 euros.

■ Aprobar el convenio para encomendar al Consorcio de Aguas de Gipuzkoa la gestión de la red de saneamiento.

■ Aprobar la rectificación del padrón municipal de habitantes.